

# ZORUNDUN BARRIA

Barri pozgarri bat eldu da euskal errira, euskaldun siñistedunak zori onez bete gaituena: Gure maite maite dogun Ion Paul bigarrenak, aurten, euskaldun gazte bat Zorundunen zerrendan ipiñiko daua.

Gazte au Sakramentu txit Santuaren Domingo Irukoiztarra da.

Erbestetarrak ao batez diñue euskaldunok santu gutxi ditugula. Ori ez da orrelan, egia da zorundunen zerrendan ipiñiak gutxi dirala, baiña benetan santuak izan diran andra ta gizonak millaka ta millaka doguz gure zeruan.

Gogoratu gure gurazo zarrak. Nork esan ez zirala benetako santuak?

Erri ta bazter guztietan izan doguz euskal errian bizitza santuan bizi izan diranak. Alegindu bagintzaz santuen zerrendan legokez, baiña egunero ta ugari ikusten genduan gauza zan letz ez geuntsan garrantzirik emoten.

Gure errian ez bakarrik eliz-gizonak bai ta be andra, gizon eta gazterik geienak benetako kristautasunean bizi ziran.



Ori ez al da santu izatea, ala? Esaten da: eusakaldunok esatean labor eta egitean luze gareala. Eta orrelaxe da izan bere...

Orain Aita Santuak gure begien aurrean, guretzat zuzenbide ta eredu izan daiten zorundun barri au ipiñi nai dauku.

Nor dan bera?

\* \* \*

Sakramentu txit santuaren Domingo Iturrate, euskal erriko basertxo zoragarri baten jaio zan, ain zuzen bere Biteriño Dima'ko auzune politean, Gorbeapeko aran zoragarrian, santuen errian (baten batek Arratiari Santuen erri esan eutsan).

Bere gurasoak lugin apal ta kristau kristatuak. Andik urten eban mutiko euskaldun zintzo orrek, Algorta'ko Irukaioiztarren etxean erlijio bizitzari asiera emoteko.

Andik Santanderreko «Bien Aparecida» santutegi ta lekaide etxera eldu zan, andik gero, 1917'an Erromara eldu zan bere ikasketa nagusiak egitera.

Antxe amaitu ebazan bere ikasketak eta 1925 an abadetu zan.

Ordurako oso gaixorik egoan.

Etorri zan Algortara osasunaren billa, baiña osagille danak galdutzat emon eben eta aize garbiak artuteko Belmonteko lakaide-etxera bidaldu eben, baiña dana alperrik, bularreko gaisoak guztiz artuta eukalako, ta azkenez, 26 urte zituala santuen usaiñean 1927'an il zan...

\* \* \*

Bizitza laburra, baiña bete bete.

Mutikotxoa zala urten eban Dima'tik aingerutxo baten antzagaz. Bai Algortan, naiz «Bien Aparecida»n naiz ta Erroma'n, beti zaindu eban aingeru antza»

Anaidiko legeak oso-osorik beteten ebazan; ikastetak, gaisorik egon arren, txapeldun lez amaitu ebazan; Pilosofian eta Teolojian maixutza-doktoraduak lortu ebazan.

Abade izan aurretik bere jakituri ta santutasunagaitik beste ikasleen zuzendaritza emon eutsoen bere nagusiak.

Erderarik be ez ekiala urten eban gurasoen etxetik eta azkarra zalako ta langillea erdera, latin, griego, Pilosofia, teologia ta beste ikasketa guztiak, lenengo zala, notarik onenakaz amaitu ebazan.

Nun dago gazte onen santutasuna?

\* \* \*

Gauza zaratatsurik ez eban egin, astirik bere ez gazte, gazterik il zalako, baiña bere santutasuna ixillekoa zan, barru-barrukoa.

Bera il zanean, ao batez esaten genduan: Ara beste Ume Jesusen Teresetxo deun bat; ara beste Gonzaga'tar Luis Deun bat.

Santutasunik aundieta ta nekezena, une bakotxean une orretan egin bear dana batetea da.

Orretarako une guztietan, gau ta egun zur egon bear da, gauza nekeza benetan, eta orixe izan zan Aita Domingo Beneragarriaren egiz bedar artean gordeta dagoan lore txikitxuaren usaiñ zoragarria. santu bat dozulako.

\* \* \*

Olakoxea izan da Aita Domingo'ren santutasuna Orain aita santuak atarako dau argitara santutasunaren loretxo apal au ta gure begien aurrean ipiñiko dau argi dagigun kristau bideetan.

Eredu ederra gure gaztediarentzat, ostera siñismenean indarturik santutasunean bizi daiten.

Arratia ta euskal erri daneko kanpaiak, gertu egon egun aundi

(Continúa en pág. 15)